



Bziber Lehiaketaren II. edizioa

abenduaren 18an hasiko da

1. Zer da Bziber Lehiaketa?

Bziber (Bi ziber ahozkatuta), gazte bizkaitarrei zuzendutako lehiaketa da, Tik Tok sarean oinarrituta. Gazteek hainbeste erabiltzen dituzten sare hauetan euskarazko edukiak sortzea da helburua eta baita erreferente euskaldunak indartzea.

Lehiaketa honen lehenengo edizioa 2020ko uztailean gauzatu zen, gazteen udako oporraldiekin batera. Bi aste horietan Edurne Azkarate aktoreak proposaturiko 4 erronka egin behar zituzten saria irabazteko.

Lehenengo edizioaren harrera ona ikusirik, lehiaketa berriro ere martxan jartzea erabaki da. Oraingo honetan gazteen Gabonetako oporraldiarekin bat eginez, hau da, **abenduaren 18tik urtarrilaren 8ra** arte. Hala ere, berrikuntzekin dator Tik Tok-eko lehiaketa hau, izan ere, adin tartea zabaldu egin da, 11 urtetik 16 urtera arte. Ez hori bakarrik, sariak eskuratzeko dinamika ere ezberdina izango da. Orain proba bakoitzak bere saria izango du.

Aurreko edizioan bezala, Edurne Azkarate izango da lehiaketa honen gidaria eta erronkak botako dituena. Edurnerekin batera Pello Reparaz ere izango da lehiaketan probak egiten.

Lehiaketari buruzko info guztia www.bziber.eus webgunean dago.

2. Nork jolastu dezake?

11 urtetik 16 urte bitarteko edozein gazte bizkaitarrek.

3. Noiz izango da Bziber Lehiaketaren bigarren edizioa?

Abenduaren 18tik urtarrilaren 8ra bitartean.





4. Zelan jolasten da?

Oso erraza da lehiaketa honetan parte hartzea, izan ere, ez da izen-ematerik egin behar aurretiaz. Bi pausu baino ez dira jarraitu behar:

1. Bziber lehiaketa jarritu behar da sare sozialetan (**@bziber_lehiaketa perfila Tik Tok eta Instagramen**).
2. Parte hartzaileek proba bakoitza bere TIK TOK perfilera igo behar du eta **Bziber etiketatu** behar du, beharrezkoak diren traolak jarritz.

Guztira 4 erronka botako ditu Edurnek. Aurreko edizioan ez bezala, proba guztiak ez dira derrigorrez egin behar saria eramateko. Parte-hartzaile bakoitzak erabakiko du ze proba egin nahi duen eta zenbat aldiz egin nahi dituen, izan ere, behin baino gehiagotan egiteko aukera izango dute.

Probak argitaratzen diren unetik eta urtarrilaren 7ra arte dute denbora parte hartzaileek probak egiteko.

Honela ba, proba bakoitzetik **200 eurotan baloratutako erosketa txartelak** zozketatuko da. Guztira 4 sari banatuko dira eta 4 irabazle aterako dira.

Oso garrantzitsua da webgunean dauden oinarriak ondo irakurtzea: www.bziber.eus

5. Zein da saria?

Guztira 4 sari egongo dira, proba bakoitzak irabazle bat izango du eta hau zozketa bidez aukeratuko da. Proba bakoitzeko irabazle bakoitzak 2 bono-sari jasoko ditu: 50 euroko balioa duen erosketa txartela **Elkar** liburu dendan gastatzeko eta **ätakontu** arropa marka bizkaitarrean gastatzeko 150 euroko balioa duen erosketa txartela.

Guztira 800€ banatuko dira bono-saritan.



6. Zein da egutegia?

Proba bakoitza egun ezberdinetan argitaratuko da Bziber lehiaketaren sare (Instagram eta Tik Tok) eta webgunean. Hala ere parte-hartzaileek urtarrilaren 7ra arte izango dute denbora probak egiteko. Hau izango da lehiaketaren egutegia:

Abenduak 18 → Edurnek lehiaketari emango dio hasiera.

Abenduak 21 → 1. proba argitaratu

Abenduak 22 → 2. proba argitaratu

Abenduak 23 → 3. proba argitaratu

Abenduak 24 → 4. proba argitaratu

Urtarrilak 7 → Probak argitaratzeko azken eguna

Urtarrilak 8 → irabazleak iragarri webgune eta sareetan.

7.-Erreferenteak, eredu gisa:

Bigarren edizio honetan ere **Edurne Azkarate** izango da lehiaketaren gidaria eta erronkak botako dituena.

Horrez gain, **Pello Reparaz** abeslaria ere izango dugu lehiaketa honetan Edurnek botatako erronkak betetzen eta bere Tik Tok sarera igotzen. Zetak taldeko abeslaria oso aktiboa da Tik Tok sarean, izan ere, euskarazko eduki asko igotzen baitu eta sare honetako euskal erreferente oso garrantzitsu bilakatu da.